

‘ARNASGUNEAK’ ANTZERKI SORKUNTZARAKO BEKA. EPAIMAHAIAREN EBAZPENA.

Arnasguneak antzerki sorkuntzarako beka eskuratzeko deialdira aurkeztu diren lanak aztertuta, oinarrien arabera epaimahaia osatu behar duten erakunde antolatzaileen ordezkariak elkartu dira, irabazlea aukeratzeko.

Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren, Azpeitiko Udalaren, Dinamoia Sormen Gunearen eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen ordezkari banak osatu dute epaimahaia, eta aurkeztu diren bederatzi lanak aztertuta,

honakoa

ERABAKI DU EPAIMAHAIAK

Honako egitasmoa saritzea *Arnasguneak* antzerki sorkuntzarako bekaren deialdi honetan:

- Aurkeztutako proiektuaren izena: **Intxaurra**.
- Taldearen izena: **Mairu Antzerki Tailerra**.
- Eskatzailea: Gaizka Sarasola Iartzabal.
- Zuzendaria: Manex Fusch.
- Aktoreak: Ainara Ribera, Gaizka Sarasola, Iban Garro, Josune Etxepare Juanen Saralegi eta Ritxi Abril.
- Testua eta dramaturgia: Gaizka Sarasola.

Proiektuaren laburpena:

Terexa gaixorik dago, baina ez bera ez du bere osasun egoerak arduratzen. Etxeko intxaurrondoaren osasunak kezkatzen du. Intxaurrondoak ere gaitza badu. Onddoren batek kalte egiten dio, eta fruituak, kanpoko azal eta guzi erortzen dira lurrera. Azalak intxaurrak ito eta usteltzen ditu. Terexak ez du sendagaiarekin asmatzen. Larritasunak, gaixotasunarekin batera, Terexa itotzen du. Gero eta nekezagoa zaio arnasa hartzea.

Terexaren sentimenduen eta emozioen bidez, inguratzen gaituen ekosistemak, inguratzen gaituzten baldintzek, guregan duten eragina azaleraztea da antzezlanaren asmoa. Inguruko baldintzek eta ezaugarriek eragiten dutelako herriengan, hizkuntzengan, jendearengan... inguratzen duten lurrek landareengan eragiten duten moduan.

Bekaren oinarrietan zehazten den moduan, 23.000 euro jasoko dituzte proiektua bere osotasunean garatzeko eta horien baitan eskainiko dituzte oinarrietan zehaztutako emanaldiak ere.

Era berean, Dinamoia Sormen Gunea erabiltzeko aukera izango du taldeak sortze-prozesuan. Lana, azkenik, 2022ko azaroan estreinatuko dute, Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketen barruan.

Egitasmo hau saritzeaz gain, epaimahaiak berariaz nabarmendu nahi izan du deialdi honetan jasotako proposamen gehienen kalitatea eta garrantzia. Zehazki, arnaguneen garrantzia jendarteratuko duen antzezlan bat sortzea da deialdiaren helburua, eta jasotako lanen artean “kalitate handiko hainbat egitasmo interesgarri” izan ditu epaimahaiak esku artean, eta “ez da erraza izan erabakia hartzea. Baina ez non aukeraturik ez zegoelako. Kontrakoa: zinbestean lan bakar bat saritzera behartuta, interes handiko beste zenbait lan bidean geratu dira”.

Azpeitian, 2021eko abenduaren 1ean

Iraitz Lazkano Garitaonandia, UEMako lehendakaria

